

TEMPUS FUGIT

ZE ONDA ANTZERKIA


Espazio itxi batean, burmuin bat, eta bertan pentsamendu bat irten ezinik. Pentsamendu honen bitartez denbora eta espazioaren arteko bidai batean murgilduko gera, iraganera baino baita ere etorkizunera. Horretarako pentsamendu honek memoriaz baliatuko da, indibiduala zein kolektiboa, denboraren inguruko galderak airera botatzeko, existentziaren inguruko gogoetak egiteko, gehienetan erantzun argirik jaso gabe. Ametsgaiztoak, oroitzapen sensorialak, obsesioak eta ametsak dira pentsamendu honen alderdi batzuk.

Eta guzti honen hari nagusia Bruselaseko aeroportua izango da. Eta hegazkin bat, hegaldi bat. Aeroportu bat “ez-leku” bat bezela. Denbora eta espazioa zintzilik gelditzen diren leku bat bezela. Leku horretan hasten da dena eta leku horretan amaitzen da dena, denboraren kontzeptu lineala apurtuz....Goikoa bezalakoa da behekoa, eta hasiera eta bukaera prisma desberdinetako puntu berdinak dira.

SINOPSIS



ZER DA DENBORA?
NON ETA NOIZ AMAITZEN DA DENBORA?
NORBAITEK ORDUA DAUKA?



DRAMATURGIA ETA ESTILOA

- ▶ Piezaren oinarri nagusiak bi izango dira: Alde batetik obra honek izango duen berezitasun bat instalakuntzatik datorren forma eta estetika izango da. Eszenatokiaren erdian lurretik zentimetro batzuetara egongo den estruktura bat , burmuin baten irudia (deformatua) alegia, eta bere inguruan espazio eszenikoa mugatzen duen geruza bat . “Eskultura” kutsua izango duen formakuntza honen inguruan gertatuko dira obraren nundik norakoak. Burmuin horretan hain justu ere isladatuta ikusi eta entzun egingo dira irudiak proiektzioen bitartez mapping teknika erabiliz.
- ▶ Pieza eraikitzeke material autobiografikoa harraminta gisa erabiliko da, argazki propio eta publikoari eko egingo dien irudi garaikideak ere, leku eta data konkretuak islatzen dituzten irudiak baino baita ere irudi oniriko eta abstraktuak (subkonszienteak, ametsen mundua etb.) . Dramaturgia eta idazkera joko eszenikoa garatu dugun eina sortzen joan gera,.Paul Auster-en “La Invencion de la Soledad” eta Georges Perec-en obra osoa idazkera garatzeko ezinbestekoak izan dira baino baita ere San Agustín, Jorge Luis Borges, Carl Gustav Jung edota Joxan Artze-ren testuak besteak beste, izan dira lan iturri. Baran bo Odar zuzendutako “Dark” serie alemanarra ere inspirazio zuzena izan da.
- ▶ Estilo aldetik, performance-atik edaten du obra honek, meta teatroa erabiliaz tarteka, absurdoa eta poesía momento intimoak tartekatuko ditu.

TALDE ARTISTIKOA

IDEIA ETA KONTZEPTUA: **JON ANDER ALONSO**

ZUZENDARITZA: **ESPE LOPEZ**

AKTOREA: **JON ANDER ALONSO**

BIDEO SORKUNTZA: **CESARE MAGLIONI & HOTARU VISUAL GUERRILLA**

ARGI DISEINUA: **MIRIAM UBANET**

UNIBERTSO SONOROA: **PAULA OLAZ**

JANTZIGINTZA: **ANE URTIZBEREA**

ESKENOGRAFIA: **BENJA REFORMAS & ALVARO LEDESMA**

EKOIZPENA: **ZE ONDA ANTZERKIA**



DATUAK ETA KONTAKTUA

- ▶ +15
- ▶ EUSKERA / 60'
- ▶ KATXETA: 1800€ (BEZ Barne)
- ▶ KONTAKTUA ETA KONTRATAZIOA:
677984110 / jonanalonso@hotmail.com /
zeondaantzzeria@gmail.com
- ▶ <https://vimeo.com/595744009/88f7460f9b>